

3. ERRONKA :

3, 2, 1 . . . ACTION!

Landu nahi izan zenuten gai batekin hasi zen Gu Geu Gea! Ondoren, aurrera eramandako mobilizazio bati esker zehazki zer eraldatuko zenuten erabaki zenuten. Jarraian, jendearen jarrera aldatu eta eraldaketan aurrera egiteko, pertsonon buruan KLIK bat eragingo zuen bideo bat nola gauzatu pentsatu zenuten. Eta egin, egin zenuten. Orain? Orain arrastoa uzteko unera iritsi gara, gure esku biluziekin eta EKINTZAren bitartez dagoen errealitatea eraldatzeko momentura.

GILTZARRIAK:

- Aukeratu duzuen gaiarekin lotura duen ekintza-proposamena pentsa ezazue taldean, zuon eskolan gauzagarria dena eta inguruko errealitatea eraldatzeko gai izango dena.
- Proposamen guztien artean, ekintza zehatz bat aukeratu ezazue.
- Hura gauzatzeko beharko dituzuenak lortu.
- Go-go!

Erronkaren hasiera-data: apirilaren 13a
Bideo igotzeko azken eguna: maiatzaren 2a.

URRATSEZ URRATS:

1. Bildu eta galdera honeri erantzuna bilatu iezaiozue: zer egin genezake gure ikastetxean identifikatu dugun arazoari erantzuna emateko? Egon daitezkeen aukera guztiak jaso.
2. Gaiari sakondu ondoren, zein ekintza gauzatzeko duzuen erabaki. Egingarria den eta ERAGIN HANDIA izango duen aukera izatea.

3. Erronka honen emaitza “WOOOW!” ugari eragin ditzan, taldekide bakoitzak zein betekizun hartuko dituen zehaztu. Aztiak: Zer da behar izango dena eta nola lortu dugu?. Kontalariak: Nola emango dugu gertaera honen berri?. Deitzaileak: Nola egin dezakegu beste gelako ikaskideak parte-hartu dezaten?. Tek-ak: Zein estrategia eramango dugu aurrera kanpoko jende mordoak egitera goazenaren eta izango dituen emaitzen berri izan dezan?

4. Data, ordua eta tokia zehaztu ostean... LANARI EKIN!

5. Sortu duzuenaren aurkezpena egin, eskola guztiak ezagun dezan eta zein zentzurekin egin duzuen jakin dezaten. Egoki ikusten baduzue, jolasak nola funtzionatzen duen azaldu iezaiezue.

Amaierako bideoak bi minutuko irupena izan dezala asko jota. Behin editatua dagoela, e-posta bidez bidali iezaiguzue guk webgunera igo dezagun.

**AZKENEKO ERRONKA DA HAU. EGIN DUZUEN
LANAREN OSTEAN OROIGARRI GOZOA IZATEA
MEREZI DUZUE.**

**EGIZUE ZEUENGATIK! ETA MUNDU HAU LEKU
HOBEAGO BATEAN BILAKATZEKO DUZUEN
BOTEREAGATIK!
EUTSI GOIARI!**

GU GEU GEA!

Erronkaren inguruan zalantzarik izatekotan info@emanhar.org-ra idatzi iezaiguzue edo Instagram bidez jarri gurekin harremanetan!